

Kirmen URIBE

Exract from the novel *ELKARREKIN ESNATZEKO ORDUA*

Istorioa banekien. Egjarik ez, ordea.
-Carlos Fuentes

Karmele Urrestiren lehen oroitzapena

1

Kontakizun zenbait idazlearen gogoan bizi litezke urte askoan, paperera ekarri baino lehen; gehienak oroimenaren ilunpeta galtzen dira, sekula hezurmanitu gabe, baina gutxi batzuek eutsi egiten diote denboraren joanari. Horietako bat da orain datorren hau.

Urresti familiari buruzkoak entzunak nituen etxean. Zer esanik ez, Ikerne Letamendi Urrestirenak, gure amaren adinekoa baita; txikitatik izan dira lagunak eta Ikerne oporraldian Ondarroara etortzen zenetan elkarrekin irteten ziren kalera. Amak kontatzen zidan, liburuak erosteko etxean dirurik ez zegoenez, Ikmeren aitona-amonen bizilekura joaten zela liburuak irakurtzera, Antsosolora. Gure ama ordua baino lehen agertzen zen, eta halatan, Ikmeren aitona-amonak liburutegian zain egoteko eskatzen zioten, bilobak bazkaltzen amaitu artean. Gure amak ordu erditxo hura baliatzen zuen irakur zaletasuna asetzeko.

Behinola, unibertsitate ikasketak egiten ari nintzela, gure etxera bisitan etorri zen Ikerne, bere ama Karmele Urrestirekin batera. Urteetan sartuta egon arren, emakume dotorea eta buru argia begitandu zitzaidan Karmele. Bere bizitzako kontuez aritu zitzaidan, alabak hala eskatuta, bazekien-eta ni literaturzalea izanik istorioak maite nituela; baina aitor dut, iraganari baino etorkizunari arreta gehiago jartzen zaion adin horretan, Karmele Urrestik aipatutako data eta izen amaigabeen artean zorabiatu egin nintzela. Eta orain damu dut emakume heldu hark sasoiaren zegoenean esandakoak zentzunez idatzi ez izana, eta galdekizun uztea burura jaiotzen zaizkidan itaun guztiak. Nolanahi dela, Karmelerekin izandako hitzordu hura ez zait sekula atzendu; alderantziz, urteen poderioz hazten joan da neure barnean, ohartu bainaiz hark bizitakoak, orduan gertatu zenak, testuinguru hark, neurri batean, neure bizitzako istorioa osatzen laguntzen didala, ulertzen nor naizen eta zergatik. Ez gara

izaki isolatuak, gure garaiaren eta kulturaren eta hezkuntzaren oinordekoak baizik. Orobat, iraganarenak.

Beste kontu bat ere bada liburu hau idaztera adoretu ninduena. Nire emazteak 80ko hamarraldiko argazki bat erakutsi zidan: nesken futbol talde bateko kideak ziren hondartzan, bederatzi-hamar urterekin, irribarretsu, txikitan hondartzan jolasten baikinen futbolean, marea beheara zenean; eta tartean zegoen bera ere, hantxe, baloia eskuan. Nesken futbol taldearen atzean kaiko muturraren harrizko horma ikusten zen, itzelezkoa, pintadez betea. Neure buruari galdetu nion, umeok nola izaten ahal ginen zoriontsuak halako tentsio politikoa zegoen herrialde batean.

Duda-muda eta atzera-aurreren ostean, 2010ean ekin nion azkenik Karmele Urresti eta bere belaunaldia ardatz izango zituen eleberraren lanketari; ondo gogoan dut, Bostondik Providencerako tren bidaiara batean hartu nuela erabakia, akaso norbera kanpoan dagoenean ikusten direlako gauzak argien. Eta egia da, bien bitartean beste nobela bat idatzi eta argitaratu dudan arren, orduetik hona ibili naizela Karmeleren bizitzaz eta garaiak ikerketak egiten.

Thomas Mannek zioen, benetako gertaera bat idazteko premiazkoa dela hura jazo zenetik urte batzuk igarota izatea; edo, bestela, garai historiko berri batean sartuta egon behar duela gizarteak. Nahiz eta, agian, ez bata ez bestea suertatu ez diren, luze gabe helduko diot kontakizunari.

Familia baten bizitza da hau, herri oso batena ere izan litekeena.

[...]